

# ek!

eta kitto!  
euskara elkarte

2026ko apirilak 30 · 1394 zenbakia

## ETENIK EZ DUEN DANTZA

**M** Meka  
Lanbide Eskola

**Hazi, hezi,  
Mekan ikasi!**

LANBIDE HEZIKETAKO ESKAINTZA

**ATE IREKIAK**  
MAIATZAK 13

\* Eman izena [www.meka.eus](http://www.meka.eus) web orrian

**AURREMATRIKULA**  
Maiatzaren 4tik 22ra

[www.meka.eus](http://www.meka.eus)    

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA  
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

## Goi Mailako

## Heziketa Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- | Mekatronika Industrialia
- | Automatizazio eta Robotika Industrialia
- | Energia Berriztagarriak **BERRIA**

## Espezializazio ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa
- | Eragiketa-teknologiaren Inguruneetako Zibersegurtasuna



## TALENTU PROFESIONALA

eskolatik - industriara

# ATE IREKIAK



11:00etan

**Maiatzak 9**

664 298 683



UNI  
EIBAR  
ERMUA

# ATE IREKIAK

MAIATZAK 6 17:00

IKASTETXE PUBLIKO DOAKOA



MERKATARITZA



ADMINISTRAZIOA  
ETA  
KUDEAKETA



JARDUERA  
FISIKOAK  
ETA KIROLAK



INFORMATIKA  
ETA  
KOMUNIKAZIOAK



IZENA EMAN  
EDO DEITU

943 89 92 11

[www.uni.eus](http://www.uni.eus)



HEZKUNTZA SALA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACION



Otaola Hiribidea, 29  
20600 Eibar, Gipuzkoa  
943 89 92 11  
[idazkaritza@uni.eus](mailto:idazkaritza@uni.eus)  
[www.uni.eus](http://www.uni.eus)

[@uni.eus](https://www.instagram.com/uni.eus)

# Jarrai iezaguzu!

BIDEOAK YouTubean ikusgai



[www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus)



Eusko Ikaskuntza - Laboral Kutxa Gaztea Saria irabazi du Maddi Alberdi ikertzaile. 'Gatibautasunetik askapenera: Marcela Lagarderen feminismoa eta euskal emakume abertzaleen bizipenak elkarrizketan' lanari eman diote aitortza. Doktorego tesiari nondik norakoak azaldu dizkigu gazte eibartarrak.

**eta kitto!**  
euskara elkarteak

#### ARGITARATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

aldizkaria@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarteak@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Naia Aizpurua,

Irati Alvarez, Ekhi Belar, Ander

Fernandez, Silbia Hernandez,

Iruñe Jaio, Yanire Sagredo,

Oihane Zabala

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte eta Naiara

Eснаоla

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINU ARLOA

Iruñe Jaio

#### JATORRIZKO DISEINUA

Maku Oruezabal

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Ander Fernandez

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALA

Eibarko Udala

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



2024  
KIDIZKARIA ALDIZKARIAREN  
DIFUSIOA



Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



("...eta kitto!" k ez du bere gain  
hartzen aldizkarian adierazitako  
esanen eta iritzien erantzunkizunik)

## Eskutitzak



### Northfit Hybrid HK txapelketa gaztelera hutsean

Northfit Hybrid HK Eibar txapelketa jokatu zen zapatuan Untzagan. Jarduera bera ez nintzen ikusten egon, baina esataria etxetik ere entzuten nuen. Bost ordu pasako emanaldia izan zen eta euskararik ez zuen erabili. Gazte gihartsuak denak erdeldunak ziren? Eta ikus-entzuleak ere? Zuten adinarekin, gazte horiek Euskal Herrian ikasketak egin badituzte, euskaraz ere ikasi dute!

Jarduera hori egiteko Udalak baimena eman badu, gertatukoaren erantzunkizun handia du. Ez al da ba gurea "Euskeraz...eta kitto!"?

Larunbat goizean inondik inora ez zen leloa bete.

Jose Luis Murgoitio

## Hortik esanak



Dantza lanbidea da, hezkuntza, kultura eta enplegua. Eta, hala eta guztiz ere, sektore prekarizatuenetarikoa izaten jarraitzen du, arteen eta kulturaren barruan gutxien aitortzen dena.

Sorkuntza eta dibulgazio koreografikoaren garrantzia aldarrikatzen dugu, dantza erakustaldiak eta ikerketa, dantzak hezkuntzan, ikasgeletan, duen presentzia aldarrikatzen dugu.

Era berean, babes instituzional, egonkor eta estruktural handiagoaren premiazko beharra aldarrikatzen dugu, sektore profesional honetan lan egiten dugunontzat baldintza duinak bermatuko dituen.

Dantza egoera larrian dago duela urte batzuetatik hona Euskadin.

Kulturaren Euskal Behatokiak ADDE, Euskal Herriko dantza-profesionalen elkartearekin elkarlanean egindako 2022ko urriko txostenean jasotako datuen arabera.

(Sektoreari irekitako galdetegi baten bidez egindako txostena, ikuspuntu estatistikotik azter daitezkeen datuak lortzeko helburuarekin)

Oro har, dantzaren sektorean prekariedade maila nabarmena antzematen da. Inkestatutako pertsonen artean, aukera nagusia da nolabaiteko egonkortasuna lortzea zailtasunekin (%36,6k adierazi du ibilbide arrakastatsu erlatibo duela), baina %44k ezegonkortasunen bat adierazi du, dela lana beste sektore batzuekin konbinatzeko beharrragatik (%21,95), dela lana eta prestakuntza konbinatzen jarraitzeko egoeran egoteagatik, baita dantzaren beste sektore batzuetan parte hartzeagatik ere (%21,95). Soilik %13,4k adierazi du ibilbide erraza izan duela dantzaren munduko lan-egonkortasunerantz, ikuspegi horretatik arrakastatsutzat jo daitekeena.

**ADDE Euskal Herriko Dantza Profesionalen Elkartearen ARGIAN argitaratua**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**POSTURA** → Apustua. "Hara, Bixente, ez eixok iñori esan, baiña posturia irabazita jaukagu".

**POSTURA EGIN.** → Apustua egin. Posturia eingo deuat kaja bat galleta ezetz jan".

**POT EGIN.** → Hil, zendu. "Munduaren jabe zalakuan, eta hor, pot egin dau". Akitu, nekatu. Gaztelera 'desfallecer'. "Pot eginda, baiña azkenian heldu giñan Karakatera".



Idurre Iriondo

## Farmaziak

<b>BARIXAKUA 1</b>
EGUNEZ   Castaño (J. Etxeberria, 7)
<b>ZAPATUA 2</b>
EGUNEZ   Elortza (Juan Gisasola, 18)
<b>DOMEKA 3</b>
EGUNEZ   Castaño (J. Etxeberria, 7)
<b>ASTELEHENA 4</b>
EGUNEZ   Mendinueta (Urkizu, 6)
<b>MARTITZENA 5</b>
EGUNEZ   Elortza (Juan Gisasola, 18)
<b>EGUAZTENA 6</b>
EGUNEZ   Zulueta (San Agustin, 5)
<b>EGUENA 7</b>
EGUNEZ   Zulueta (San Agustin, 5)
<b>BARIXAKUA 8</b>
EGUNEZ   Castaño (J. Etxeberria, 7)

**GAUEZ BETI**, 2026an,  
Elortza (Juan Gisasola, 18)

## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 54 39 38
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Hildakoak

- **Cesareo Manso Prieto**. 79 urte. 2026-04-16.
- **Antonio Iglesias Fariñas**. 67 urte. 2026-04-24.
- **M<sup>a</sup> Asuncion Soto Lorenzo**. 77 urte. 2026-04-27.
- **Ramon Arrate Idoeta**. 74 urte. 2026-04-27.
- **Rosina Idarraga Zabala**. 98 urte. 2026-04-27.
- **Jose Antonio Rodriguez Lariz**. 2026-04-28.
- **Luis Carabantes Martinez**. 85 urte. 2026-04-28.



## Maiatzaren 9an egingo da udaberriko bigarren eskuko azoka Errebal Plazan

**S.H.** Eibarko Udaleko Ingurumen Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin, udaberriko bigarren eskuko azoka antolatu du maiatzaren 9rako, zapatua. Azoka 10:00etatik 14:00etara egingo da Errebal Plazan, eta parte hartzeko bi aukera egongo dira. Alde bate-tik, interesdunek salmenta-postu bat erreserbatu ahal izango dute, bertan etxeko erabilitako objektuak saltzeko (horretarako, aldez aurretik izena eman beharko da). Bestetik, nahi dutenek gehienez

hamar objektu utzi ahal izango dituzte gordailu-salmentan, eta antolakuntzako kideak arduratu dira horiek saltzeaz. Kasu horretan, ez da beharrezkoa aurrez izena ematea, baina objektuak azoka egunean bertan eraman beharko dira, 09:00etatik 10:00etara. Parte hartu nahi dutenek maiatzaren 6ra arte eman dezakete izena [www.merkabi.eus/eibar](http://www.merkabi.eus/eibar) webgunearen bidez edo, bestela, 943 670 249 telefono zenbakira deituta.

## 60 km/h-jo abiadura-muga duen radarra jarri dute Maltzagan

**S.H.** Radar berria jarri dute Maltzago biaduktuaren hasieran, AP-1 eta AP-8 errepideak elkartzen diren gunean. Azpiegitura hobetzeko lanak egiten dihardute bertan eta, esan dutenez, langileen segurtasuna bermatzeko hartu dute neurria. Horrela, tarte horretan abiadura muga 60 km/h-koa izango da. Radar berria aldi baterako egongo da indarrean, biaduktuko obrak amaitu arte. Agintariak gomendatu dute tarte honetan arreta berezia jartzea; izan ere, datorren astetik aurrera etengabeko zaintza indartua izango du.



## Maiatzaren 18tik aurrera eskatu daitezke Sanjuanetarako kuadrillen dirulaguntzak

**S.H.** Udalak San Juan jaietarako kuadrillei zuzendutako dirulaguntzak emango ditu aurten ere. Eskaerak maiatzaren 18tik ekainaren 3ra bitartean aurkeztu beharko dira, Kultura Sailean (Portalea), edo posta elektronikoz ([kultura@eibar.eus](mailto:kultura@eibar.eus)). Laguntzak jasotzeko, kuadrilla bakoitzak aurrekontu bat aurkeztu beharko du (kamisetak, instrumentuak edo bestelako materiala erosteko), enpresaren

datu guztiekin (online egindako erosketek ez dute baliorik izango). Horrez gain, taldeko kide guztien izen-abizenak eta NAN zenbakiak ere aurkeztu beharko dira. Ez dago adin-mugarik, ezta kide kopuruaren mugarik ere, baina kuadrillen izenak eta kamisetetako mezuak euskaraz izan beharko dira. Informazio gehiagorako Kultura sailean galdetu edo Udalaren webgunean begiratu.



## 214 txosten tramitatu dira ezohiko erregularizazio-prozesuaren lehen egunetan

**S.H.** Eibarko Udaleko Gizarte-kintza Sailak atzeritarren ezohiko erregularizazio-prozesuaren lehen balantzea egin du, hasiera-ko egunetan izandako eskari handia nabarmenduz. Astelehenetik eguaztenera bitartean, guztira 214 zaurgarritasun-txosten tramitatu dituzte. Udalaren arabera, zerbitzura jo duten pertsonak 24 herrialdetakoak izan dira. Azaldu dutenez, txosten hori ezinbesteko urratsa da erregularizazio-prozesuan aurrera egin ahal izateko, eta horrek herritar ugari erakarri ditu udal zerbitzuetara. Bereziki jendetsua izan zen dispositiboa martxan jarri zen lehen eguna: 270 lagun artatu zituzten (ia erdiak izapide hori egiteko).

Eskari handia dela eta, Gizarte-kintza Sailak bere talde teknikoa indartu behar izan du. Zerbitzuak hitzordurik gabe funtzionatzen jarraituko du ekainaren 30era arte, 09:00etatik 14:00etara, erabilitzaileak iritsi ahala artatuz.

## Eskualde mailako 'Debarrena Ekinean' topaketa egingo da maiatzaren 15ean

**S.H.** Eibarko Udalaren eta Debegearen lankidetzari esker, Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin antolatutako *Debarrena Ekinean* topaketa maiatzaren 15ean, barixakuan, egingo da, Portalean, 12:00etatik 15:00etara bitartean. Helburua Debarreneneko ekintzailetza-ekosistema indartzea da eta, horretarako, ekitaldiak programa oparoa eskainiko du: aurkezpenekin eta eskualdeko ekintzailetza-estrategiaren azalpen instituzionalarekin hasiko da. Ondoren, *pitching* saioa egingo da: Make in! programaren baitan, Neety, Soladit, Neexis, SAI-3D, MGZ eta Urdin proiektuek Debarreneneko ekintzailetzaren aniz-

tasuna eta berrikuntza gaitasuna erakutsiko dute. Hori amaitu eta, jarraian, mentoring prozesuen erronkei buruzko mahai-ingurua eta *scouting* saioak hasiko dira. Eta, horren ostean, Debarrena Ekinean ekimenaren irudia eta identitate berritzeko prozesuari buruzko hausnarketa egingo dute. Jardunaldia networking gune batekin eta hamaiketakoarekin amaituko da, "parte-hartzaileen arteko harremanak eta sinergiak sustatzeko". Informazio gehiago nahi izanez gero, edo izena emateko, Debegea garapen agentziaren webgunera jo daiteke ([www.debegesa.eus](http://www.debegesa.eus)) edo, bestela, 943 820 110 telefono zenbakira deitu.

**PUBLI RESA**  
osagarrien pertsonalizazioa

merchandising  
serigrafia  
lanerako errota

www.publiresa.com  
943 701 497 / 687 879 667  
publiresa@publiresa.com

Armagin 3-5 beheak

**Izadi**

**LORADENDA**

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE  
NATURAL ETA  
LEHORRAK  
EKONTZETARAKO  
LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMUAK

Entzarguak etxera



# HAMA DANTZA PAUSO

ARGAZKIAK: EIBARKO UDALA



Era guztietako dantzak ikusteko aukera paregabea izan genuen apirilaren 24an, Dantzaren Nazioarteko Eguna ospatzeko herriko dantza eskola eta taldeen eskutik egin zen jardunaldian. Ballet Eibarres, Beheko Tokia, Eibar Dantza Eskola, Estidantza, Kaxa, Koa, Kubantzari, Pagatxa, Untzaga jubilatuen etxeko dantza taldea eta Kezka aritu ziren erakustaldiak eskaintzen; azken talde honek, gainera, Jainaga, Narbaiza eta Quico Pugesen zuzeneko musikaren laguntza izan zuen. Auzoetan dantzatu eta gero, talde guztiak Untzagan elkartu ziren eta, eguna agurtzeko, Begi Bide taldeak erromeria eskaini zuen.





MADDI ALBERDI • Gizarte langilea eta ikertzailea

# “Nazionalismoari buruzko ikuspegi klasikoa nahiko kadukatuta dago”

Maddi Alberdik Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Gaztea Saria irabazi du, ‘Gatibutasunetik askapenera: Marcela Lagarderen feminismoa eta euskal emakume abertzaleen bizipenak elkarrizketan’ lanari esker. Orain, bere doktorego-tesian, Euskal Herriko emakume abertzaleen bizipenak jasotzen eta aztertzen ari da.

Testua  
IRATI ALVAREZ  
MALAXETXEBARRIA

**M**addi Alberdi gazte eibartarrak ez zuen espero, baina poz handiz jaso du Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Gaztea Saria. Gizarte langilea eta ikertzailea da, eta azken urteotan doktorego-tesian murgilduta dabil feminismoaren eta nazionalismoaren arteko harremana aztertzen, Euskal Herriko emakume abertzaleen bizipenak oinarri hartuta. Mexikon egindako egonaldiak eta han ezagututako Marcela Lagarde y de los Ríos pentsalariaren lanak norabide berriak ireki dizkiote. Orain, ikerketarako egiten dabilen elkarrizketetatik jasotako testigantzak Lagarderen teoriaren bidez aztertu eta gaur egungo eztabaidekin gurutzatu nahi ditu.

**Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Gaztea Saria irabazi berri duzu. Zer moduz zaude saria irabazi eta gero?**

Oso pozik. Ez nuen espero, eta sorpresa handia izan da. Mexikotik bueltatu berrian, nire asmo bakarra hara itzultzea zen, gauza asko utzi baintuen egiteko. **Zer esanahi du sari honek zure ibilbidean, une honetan?**

Alde batetik, beste egonaldi bat egiteko aukera ematen dit, ikuspegi berriak eza-gutu eta tesia aberasteko. Bestetik, aitor-tza da. Askotan ikerlari gazteen lanak

tiraderan geratzen dira; halako sari-ek-gure lana plazara ateratzeko eta ezta-baidara eramateko aukera ematen dute.

**Zein da zure tesiaren ardatza?**

Euskal nazionalismoaren eta feminismoaren arteko harremana ikertzen ari naiz. Horretarako, Euskal Herriko emakume abertzale aktibisten bizipenak eta ikuspegiak jasotzen nabil.

Doktoregoa 2024an hasi nuen, eta nazioarteko egonaldi baterako Mexikora joan nintzen. Han ezagutu nuen Marcela Lagarde y de los Ríos, Latinoamerikako erreferente feminista nagusietako bat. Orain, Universidad Nacional Autónoma de México-ko Genero Ikasketen Zentroan haren pentsamendua sakondu nahi dut, eta bildutako datuak ikuspegi horretatik aztertu.

**Nor da Marcela Lagarde?**

Antropologo eta pentsalari feminista mexikarra da. “Feminizidio” kontzeptua berari zor diogu, emakumeen aurkako indarkeria testuinguru sozial eta politikoan ulertzeko. Bere lanik ezagunena ‘Los cautiverios de las mujeres’ (1990) da.

Liburu horretan bost “gatibutasun” mota deskribatzen ditu: ama edo emaztearena, moja edo birjinarena, prostitutaarena, maitasunarena eta eroarena. **Zer da Lagarderen ikuspegia oinarri hartuta egin nahi duzuna?**



Maddi Alberdi Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Gaztea Saria-ren irabazlea. IRATI ALVAREZ

**“Nazionalismoaren eta feminismoaren artean gatazka eta eztabaida batzuk badaudela iruditzen zitzaidan, eta hori aztertu nahi nuen”**

Helburua da kontzeptu horiek eta genero-sinkretismoa bezalako tresnak erabiliz nire datuak interpretatzea, eta horiek gaur egungo testuinguruarekin eta feminismoaren eztabaida garaikideekin gurutzatzea. Hortik zer ondorio ateratzen diren ikusi nahi dut.

#### **Une honetan, zein puntutan zaude?**

Orain buru-belarri nabil lanean: elkarriketak uda baino lehen amaitu, transkribatu eta dena prest utzi nahi dut, horrela irailean edo urrian Mexikon analisiarekin hasteko. Aipatzekoa da euskaraz tesia egiteak zailtasun gehigarri batzuk ere badituela.

#### **Zer dela eta emakume abertzaleekiko interesa?**

Ikertzaileok halako lan luzeak hasten ditugunean, normalean bada atzean kezka edo motibazio pertsonal edo kolektibo

bat. Nire kasuan, gizartearen sumatzen nuen tentsio batetik etorri zen: nazionalismoaren eta feminismoaren artean gatazka eta eztabaida batzuk badaudela iruditzen zitzaidan, eta hori aztertu nahi nuen.

Bestalde, akademian ere —nik egindako `Subiranotasuna Europako Herrietan´ masterrean, esaterako— nazionalismoa asko lantzen da, baina emakumeen, bolleraren eta trans pertsonen ahotsak oso gutxi agertzen dira, are gutxiago ikuspegi feministatik edota aitortu gabeko nazioen kasuan. Horrek guztiak bulztatuta erabaki nuen gai honi heltzea.

#### **Zer galdera dituzu buruan?**

Hasieran ez zen galdera bakar bat egon. Baina gaur egun, proiektua nahiko gorabeheratsua dela kontuan hartuta, nire galdera nagusia da nola bizi duten Eus-



Maddi Alberdi ikertzailea, Mexikon eginiko egonaldian.

## “Errealitatea askoz konplexuagoa da, eta estereotipo asko daude kontakizun horietan”

kal Herriko emakume abertzale aktibistek feminismoaren eta nazionalismoaren arteko harremana.

Horrez gain, interesatzen zait nola eraikitzen diren nazio- eta genero-identitateak, zer paper izan duten emakumeek, bollerek eta trans pertsonen mugimendu nazionalistan, eta nola aldatu den hori denboran zehar, bereziki feminismoarekin izan dituzten elkarrizketen ondorioz

Proiektua aurrera doan heinean, galdera gehiago ere sortzen zaizkit.

### **Nolako elkarrizketak ari zara egiten?**

Duela hilabete hasi nintzen elkarrizketekin, eta 25-26 izango dira guztira. Euskal Herri osokoak izatea nahi dut, zazpi lurraldeak kontuan hartuta. Hiru eremu administratiboetako jendea egon-

go da seguru. Adinari dagokionez, lau belaunaldi bildu nahi ditut: 18 urtetik 65 urtetik gorakoak arte.

### **Zer lortu nahi duzu tesiarekin?**

Helburua da gai honen inguruko eztabaida piztea eta nazionalismoari zein emakumeen paperari buruz dauden ikuspegi zurrunko apurtzea. Nire ustez, errealitatea askoz konplexuagoa da, eta estereotipo asko dago kontakizun horietan. Horiek kolokan jarri nahi ditut, eta feminismoak gaur egun gauzak beste modu batean egiteko duen ahalmena azaleratu. Hori lortzen badut, pozik!

### **Amaitzeko, zer mezu zabaldu nahi zenieke herritarrei?**

Gauzak konplexuago ikusten hasi behar dugu, eta sinetsi beste modu batean egin daitezkeela. Feminismoak horretan asko irakatsi digu.

Gaur egungo testuingurua nahasia da, eta nazionalismoaren ikuspegi klasikoa zaharkituta geratzen ari dela iruditzen zait. Horregatik, gauzak beste modu batean egiteko garaia da: irakurtzen, ikertzen eta egiten jarraituz.

# db!

## DEBABARRENEAN ZEHAR



Saio honetan, Debabarrenean dauden Espainiako estatuko beste herrialdeetako etxe eta elkarteak ezagutu ditugu. Eibar eta Ermuan ibili gara, Andaluzia, Extremadura, Galizia, Burgos, Kantabria eta Gaztela eta Leongo elkarreetara hurbilduz. Bertan, elkarriketak egin eta haien historia eta egunerokoa gertutik ezagutu ditugu. Ezagutu Debabarreneko aniztasuna barrutik!

### ALBISTEAK

60 km/h-jo abiadura-muga duen radarra jarri dute Maltzagan, AP-1 eta AP-8 errepideak elkar-tzen diren gunean.



Eskualdeko ekintzaileak elkartzeko `Debabarrena Ekinean´ topaketa egin-go da maiatzaren 15ean Eibarren.



PLANA  
bi!

### Aprir 30

IBILAL. **DOLMENEN IBILBIDEA** 19:30 ANTZOKIA (SORAL)

ZINEA **ENARAK** 18:00 BURUGORRI (ITZIAR)

### Mai 01

MUSIK. **BLESZ, MARO JOVEN** 22:30 GAZTETXEA  
**SANTO, MATI, TASURI,** (MUTRIKU)  
**CALIÈ, MATEO ZIKUTA &**  
**EL GARTO, RUMI**

MAI 1 **MANIFESTAZIOA.** LAB 12:00 UNTZAGA (EIBAR)

### Mai 02

JARD. **BORROKAN BARRENA** 11:00eta- PLAZA, MERKATUA  
GKS, ITAIA tik (ERMUA)

JAIK **SANTA KURUTZ** 10:30etik STA. KURUTZ  
EGITARAUUA (EIBAR)

BISIT. **DOLMENEN IBILBIDEA** 09:00 KARAKATE APARKAL.  
BISITA GIDATUA (SORAL)

JAIK **ITZIARKO** 11:00 LEKU EZBERDINAK  
**ERROMERIA EGUNA** (ITZIAR)

BISIT. **DEBATIK ZUMAIARA** 17:30 ANES ARRINDA  
**ITSASONTZIZ** PASEALEKUA (DEBA)

MUSIK. **AKÈER ETA MIROTZ** 22:00 GAZTETXEA  
(MUTRIKU)

FESTA **AMIANTO FESTA.** 11:00eta- FREDIYSKATE eta  
**FREDIY 8 URTE** tik GAZTETXIA (EIBAR)

### Mai 03

JAIK **SANTA KURUTZ** 09:45etik STA. KURUTZ  
EGITARAUUA (EIBAR)

TAILER. **LA NERE ANTZERKI** 11:00 IMP (EIBAR)  
**TAILERRA**

JAIK. **SANTA KURUTZ** 09:00 ESTAZIÑO  
**EGUNA** (SORALUZE)

IBILAL. **IRUKURUTZETA** 11:00etatik IRUKURUTZETA  
**EGUNA** (SORALUZE)

# Langileen elkartasunetik sortutako indarra, aldaketarako giltza

Testua **SILBIA HERNANDEZ ARRAZOLA**

Maiatzaren lehen egunean ospatzen den Langileen Nazioarteko Eguna, mundu osoko langileen eskubideen aldarrikapenerako eguna da. Izan ere, ezin dugu ahaztu egun honen jatorria 1886ko Chicagoko grebetan, zortzi orduko lanaldia eskatzeko mobilizazioetan dagoela. Ordutik, maiatzaren 1a lan baldintza duinen, berdintasunaren eta justizia sozialaren aldeko borrokaren sinbolo bihurtu da eta, ohikoa den moduan, sindikatu guztiek kalera irtetzeko deia egin dute aurten ere.

**L**angileen aldeko politikak aldarrikatuko ditu LABek Maiatzaren Lehenean. Aurten Eibarren izango da Maiatzaren Lehenerako LAB sindikatuak antolatutako egitaraua. Debaldea mailan deitutako manifestazioa Untzagatik abiatuko da bihar (barixakua, maiatzak 1), 12:30ean, *MI Langileok eragin* goiburupean. Sindikatu abertzalearen aldarri nagusiak hiru hauek izango dira: etxebizitza eskubidea, kalitatezko zerbitzu publikoak eta soldata eta pentsio duinak. Manifestazioa amaitu eta gero, ekitaldi politikoa egingo da eta, ondoren, herri bazkaria (14:30ean Untzaga plazako arkupeetan). Eta, bazkalostea girotzeko, musika egongo da, Nebarren eskutik.

Mundu mailan “zanpaketa eta gerra” nagusi diren honetan, Maiatzaren Lehenean LABek gerraren aurkako mezua irmoki adieraziko duela diote sindikatutik. Horrekin batera, “gutxi batzuen etekinak baino, denon bizitzak erdigunean

jarriko dituen eredu” aldarrikatuko du sindikatu abertzaleak.

## **Gutxieneko soldata aldarrikatuko du ELAk Langileen Egunean**

ELAK, bestetik, gutxieneko soldataren alde estutzen jarraitzeko baliatuko du aurten Maiatzaren Lehena, eta sindikatuaren aldarrikapen nagusia ere hori izango da: *SMI 1.500; Jo ta ke, hemen erabaki arte* goiburupean antolatu ditu aurtengo mobilizazioak.

Mitxel Lakuntza idazkari nagusiak azaldu duenez, “hemengo LGS bat aldarrikatzea ELAren estrategiaren oinarritzeko puntua da (sektore askotako negoziazio kolektiboan ere erronka eta faktore erabakigarria da), eta aurtengo Maiatzaren Lehenean eskari hori ozenago egingo zaie patronalei, gobernuari eta alderdi politikoei”. Ildo honetan, Lakuntzak aldarrikatu du Lehendakariak “iniziatiba hartu behar” duela, “batetik, Confebask zuzenean interpelatzeko eta, bestalde, gobernu gisa 1.500eko gutxieneko



1930eko hamarkadan Eibarren egindako manifestazioa (Argazkia: Memoria Historikoaren Zentroa, Salamanca).

erreferentzia bere egiteko”. Azken urteetan bezala, Bilbon (11:30ean Jesusen Bihotzetik) eta Iruñean (11:30ean Erorien monumentotik) egingo ditu manifestazioak. Greba orokorra LABekin batera deitu zuen arren, Maiatzaren Lehenean sindikatu bakoitza bere aldetik mobilizatuko da, beraz.

**UGT eta CCOO aurten ere batera** CCOO Euskadi eta UGT Euskadi sindikatuek aurten ere elkarrekin deitu dituzte Maiatzaren Leheneko mobilizazioak. Aurreko urteetan bezala, Euskadiko hiriburuetan izango dira manifestazioak. Donostikoa 12:00etan irtengo da, Alderdi Ederretik. Aurten ere lan-

baldintzak, soldatak eta eskubide sozialak izango dira ardatz nagusiak, Maiatzaren Lehenerako aukeratu dute lemak (*Derechos, no trincheras. Soldatak, etxebizitza eta demokrazia*) argi adierazten duen bezala.

**EHKsren manifestazioa Iruñean**

Bestetik, Euskal Herriko Kontseilu Sozialistak (EHKS) “gera inperialistaren aurka” Iruñean mobilizatzeko deia egin du. Adierazi dutenez, “Maiatzaren Lehena Langileon Nazioarteko Eguna izanik, inoiz baino premiazkoagoa da langileria berriz ere nazioarteko indar bilakatzea, etsai ei aurre egiteko. Mundu erdia suntsitzen eta beste erdia krisialdi betean sartzen ari da Amerikako Estatu Batuak eta Israel buru dituen Mendebaldeko oligarkia: manifestazio honetan NATOren, Europar Batasunaren eta sionismoaren kontra mobilizatuko gara. Horien guztien aurka, eta alternatiba sozialistaren alde”.

Iruñeko manifestazioa 12:30ean hasiko da, zezen plazatik eta, hara joateko, Eibarren 10:15ean batuko dira, Ego-Gaineko autobus geltokian.



# Festa hotsak entzungo dira Santa Kurutzen

Joan den urteko abenduan, Santa Kurutz ermitan kanpaia falta zela ohartu zen mendizale bat. Historiaren lekuko izan da kanpai hori, Gorosta eta Mandiola auzoetakoek prestatutako jai asko bizi izandakoa ere, baina aurrean festa galduko du. Bere falta ere igarriko da, baina bertaraten direnen barre, kantu eta musiketik jarriko diete doinua Santa Kurutzeko jaiari.

Testua **EKHI BELAR ERRASTI**

**A**steburu honetan ospatuko dira Santa Kurutz jaiak, zapatuan eta domekan. Jai batzordeak ekitaldiz beteriko egitaraua prestatu du, “urterokoari eutsiz, aldaketa handirik gabe”, esan digute Eneritz Alberdi Mandiola eta Leire Uranga Celaya batzordeko kideek. “Betiko ekintzei eusten saiatzen gara. Batetik, tradizio direlako. Adibidez, mezari beti eusten diogu. Eta bestetik, oso ondo funtzionatzen duten ekintzak direlako: umeen jokoak, txapel-jaurtiketa... Gainera, hemen ez baditugu horrelako gauzak egiten, inon ez dira egingo. Eta ondorioz, espresuki ekintza horiek ikustera etortzen direnak ere ez dira etorriko”, diosku Eneritzek.

“Jai nintzenetik etorri naiz jaietara, orain dela 22 urtetik, eta beti izan da berdina. Jaiak ez dira Arrate bestekoak eta, orduan, txosna jartzea zaila da, baina urteekin jende gehiago animatzen bada, zeinek daki”, Leireren berbetan. “Lehen,



bertakoek jolasak egiten zituztela gogoratzen dut eta, orain, profesionalak etortzen dira herri-kirolak egitera”. Baina, nolako jolasak ziren? “Karretila eramatea, burua balde barruan sartzea eta handik gauzak ateratzea... Horrelako ton-tokeriak ziren, baina jendea etortzen zen barre egitera”, gogoratzen du Eneritzek. Gainera, berak, bai gogoratzen du joko horien aurretik ere herri-kirolak egiten zirela: “Erronka modukoak egin izan dira. Ez dut ondo gogoratzen nola, batek aizkorarekin eta besteak motozerrarekin egurra moztea zen edo zer, baina egin izan da ‘pikeren’ bat auzokoen artean”.

### Auzokoen lana

Gaur egun, dozena bat lagunek osatzen dute Santa Kurutzeko jaietako batzordea. “Auzokoak bolondres ibiltzen gara: jaiak antolatu, zerbitzatu... dena”, zerrendatzen du Eneritzek. “Gabonak pasatzen direnean egiten dugu lehen bilera: aurten zer egin nahi dugun komentatu, jaiak zein datatan jausten diren ikusi, eta gero lan banaketa egiten dugu: litxarrerriak erosi, harategira joan, Udalarekin berba egin...”.

Leire aurten sartu da batzordean eta antolakuntza nola egiten den ikusteko aukera izan du. Adin guztietako jendeak hartzen du parte jaietan eta baita antolakuntzan ere, Leire belaunaldi berrien ordezkarietako bat delarik. “Batzordeari dagokionez, nagusienak berrogeita piku urte izango ditu eta gazteenak hemeretzi”, diote.

Eurentzat, bertakoak izanik, oso jai bereziak dira eta aurretik egon



Santa Kurutzeko jai batzordeko Eneritz Alberdi Mandiola eta Leire Uranga Celaya. EKHI BELAR

## >>> Asteburu osoa hartuko dute Santa Kurutz jaietarako prestatu duten egitarauak

direnen lekukoa hartu duten bezala, atzetik datozenek ere jarraipena ematea espero dute. “Horregatik antolatzen ditugu umeentzako ekintzak, auzoan badaudelako umeak”, dio bikoteak.

### Bi eguneko egitaraua

Jaiei hasiera emateko, zapatuan, maiatzak 2, 10:30ean, kanpai hotsak entzungo dira. Baina, kanpaia falta bada, nola egingo dute? “Eskerrak baserritarrei, txintzarriak dituztelako”, diosku Leirek.



Hainbat ekintza egingo dira asteburuan eta, besteak beste, janariz eta edariz betetako "karretilla izugarria" zozketatuko da rifak erosten dituztenen artean.

11:00etan, meza egongo da Santa Kurutzeko ermitan eta, jarraian, hamaiketako Imanol Astiasaran eta Unai Andonegi trikitilariak girotuta. 12:15ean, erraldoiak eta buruhandiak ibiliko dira zelaietan, eta haurrentzako jolasak ere egingo dira. 13:00ean, herri-kirolak egongo dira Oihana Fernandez de Barrera, Julen Alberdi, Jon Unanue 'Goenatxo III' eta Ainitze Zumetaren eskutik. 14:30ean, bazkaria egingo da Ixua jatetxean (tiketak jatetxean daude salgai) eta, ondoren, erromeria egongo da Astiasaran eta Andonegik girotuta berriz ere.

Hurrengo eguna, Santa Kurutz eguna, ekitaldiz beteta dator baita ere. 09:45ean, Santa Kurutzera iguera egingo da Urkizuko iturritik. Aurrez izena eman behar da, 09:30ean Urkizun bertan, eta gainera, parte-hartzaileen artean bertako produktuekin ostatutako otarra zozketatuko da. "Igoera antolatu genuenetik, kaletarrek

**>>> Tradizioari  
eutsi nahian, ohiko  
ekintzak prestatu  
dituzte, baina  
badaude belaunaldi  
berrientzat  
prestatutakoak ere**

**>>> Gorosta eta  
Mandiola auzoetako  
dozena bat lagun  
ibiltzen dira  
Santa Kurutz jaiak  
antolatzen**

oinez igotzeko ohitura hartu dute", dio Eneritzek. 10:30ean, berriz entzungo dira 'kanpai' hotsak eta, 11:00etan, berriz egingo da meza ermitan. Ondoren, hamaiketako egongo da Usartza txistulari bandakoek girotuta. Ohikoa den bezala, 12:00etan, dantza emanaldia egongo da Kezka dantza taldearen eta txistularien eskutik. 12:15ean, makilaje tailerra eta haurrentzako jolasak egingo dira (aurtengo nobedadeetako bat). 12:45ean, 'Potx' pailazoak ikuskizuna eskainiko du. 13:45ean, txapel-jaurtiketan hartu ahal izango du parte edonork. Eta 14:30ean, 'kanpai' hotsekin eman-go zaie amaiera jaiei.

Azken urteotan eguzkiak lagun du eta, aurtun, eguraldiaren iragarpena ez da hain baikorra, "baina aterri badago, nahikoa!", Eneritzen ustez. "Iaz, egin zuen beroarekin, ia urtu egin ginen pailazoak ikusten", gogoratzen du Leirekin. Eguzkia edo euria egin, festarik ez da faltako Santa Kurutzen.

# AUTOEN GEHIGARRIA

2026ko  
apirila

## Autoa gaur egun: zenbat balio du eta nola aukeratu ondo

Autoa izatea gero eta garestiagoa da, baina aurrezteko moduak badaude. Gakoa: informazioa izatea eta erabaki egokia hartzea.

Autoa eguneroko bizitzaren parte da oraindik jende askorentzat, batez ere hiri handietatik kanpo. Hala ere, azken urteotan asko aldatu da panorama: prezioak igo dira, teknologia berriak agertu dira eta zalantzak gero eta handiagoak dira. Zenbat balio du benetan auto bat izateak? Merezki al du elektrikoak erostea? Eta zer hartu behar da kontuan bigarren eskuko auto bat aukeratzekoan?

Hona hemen galdera horiei erantzuteko gako batzuk.

Auto bat izatea ez da erostea eta erregaia botatzea soilik. Gaur egun, ibilgailu bat mantentzeak urtean milaka euroko gastua ekar dezake.



Erregaia gastu nagusietako bat da, batez ere autoa egunero erabiltzen dutenentzat. Horri gehitu behar zaizkio aseguruak, mantentze-lanak (olioa, iragazkiak,

pneumatikoak...) eta zergak, hala nola zirkulazio-zerga edo ITV.

Gainera, autoa finantzatuta badago, hileko kuota ere kontuan hartu behar da. Horregatik, gero



## MAPFRE Ubitxa

Sostoa, 1 - behea (EIBAR)

☎ 943 82 04 49

☎ 688 871 717

✉ [mubera@mapfre.com](mailto:mubera@mapfre.com)

eta jende gehiagok galdetzen dio bere buruari benetan beharrezkoa ote den auto propioa izatea.

Ondorioa argia da: auto bat erosi aurretik, komeni da gastu guztiak ondo kalkulatzeko, ez bakarrik hasierako prezioa.

**MEREZI AL DU AUTO ELEKTRIKORA PASATZEA?**

Auto elektrikoak gero eta ohikoagoak dira gure inguruan, baina oraindik zalantza ugari sortzen dituzte.

Abantailen artean daude erregaiaren aurrezkia, mantentze txikiagoa eta gidatzeko erosotasuna. Gainera, ingurumenari dagokionez ere aukera garbiagoa da.

Hala ere, baditu mugak ere: erosteko prezioa altuagoa da oraindik, autonomia mugatua izan daiteke bidaia luzeetan eta kargatzeko azpiegitura ez dago berdin garatuta leku guztietan.

Eguneroko erabilerarako (lanera joan-etorriak, erosketak...), aukera egokia izan daiteke. Baina kilometro asko egiten dituztenentzat edo kargatzeko aukerarik ez dutenentzat, oraindik, agian, ez da aukerarik onena.

Azken batean, erabakia pertsonala da eta bakoitzaren beharren arabera.

**NOLA AURREZTU AUTOAREN MANTENTZEAN**

Autoa ondo zaintzea ez da gastu bat, aurrezteko modua baizik. Berrikuspenak garaiz egitea funtsezkoa da: olio eta iragazkiak ez aldatzeak arazo handiagoak ekar ditzake. Pneumatikoen presio egokia zaintzeak



ere kontsumoa murrizten du eta haien iraupena luzatzen du.

Gidatzeko moduak ere eragina du: azelerazio bortitzek edo balazta kolpeek higadura handitzen dute. Eta, noski, adi egon behar da autoak ematen dituen seinale txikiei: zaratak, bibrazioak edo abisu-argiak. Garaiz jokatzeko da aurrezteko modurik onena.

**GARAJE** **Legarre**

autoen mantenua eta konponketa  
943 20 63 71 Legarre, 2

**ACITAIN, S. A.**  
www.acitain.com ZERBITZUGUNA

- 24 ORDUKO ZERBITZUA AVIA
- Garbiketa automatikoa eta presioarekin

Barrena, 19 943 121662 / 943 121862 acitain@gmail.com

**MAK**  
**CARROCERIAS**

**PINTURA**  
**(labean lehortua)**

943 208 502 [carrocerias\\_mak@hotmail.com](mailto:carrocerias_mak@hotmail.com) 699 203 791

**Matsaria, 2**  
**3 Pabilioia**  
**-Eibar-**

**TXAPA**

**ESARRI AUTOAK**  
MULTIMARCA

SERVICIO  
 **HYUNDAI**  
 **MAZDA**

Tel. 943 74 14 80  
Aitor 606 975 730  
OLASO, 17  
20870 ELGOIBAR  
[esamiauto@gmail.com](mailto:esamiauto@gmail.com)

## BIGARREN ESKUKO AUTOAK: AUKERA ONA, BAINA KONTUZ

Bigarren eskuko autoen merkatua indartsu dago, eta aukera interesgarriak aurki daitezke. Hala ere, erostean kontu handiz ibili behar da. Funtsezkoa da autoaren egoera aztertzea, kilometroak egiaztatzea eta mantentze-historiala begiratzea. Probako ibilaldia egitea ere ezinbestekoa da.

Prezioen aldetik, azken urteotan igoera nabarmena izan da, baina oraindik aukera merkeagoa izaten jarraitzen du auto berrien aldean. Hori bai, auto zaharrenek mantentze handiagoa eska dezakete.

Iruzurrak saihesteko, komeni da:

- Dokumentazioa ondo berrikustea.
- Prezio susmagarriekin kontuz ibiltzea.
- Saltzaile fidagarriak aukeratzea.

Ondo informatu eta presarik gabe erabakitzea da gakoa. Autoaren mundua aldatzen ari da, baina oinarriak berberak dira: informazioa, plangintza eta zentzuzko erabakiak.

Gaur egun inoiz baino aukera gehiago daude, baina horrek esan nahi du aukeraketa ere konplexuagoa dela. Horregatik, komeni da lasai aztertzea zer behar dugun benetan, eta horren arabera erabakitzea. Izan ere, auto egokia aukeratzea ez da dirua aurrezteko soilik: eguneroko bizitza erraztea ere bada.



## TOKIKO TAILERRAK ETA KONTZESIONARIOAK

Eibarko tailer mekanikoak ez dira ohiko konponketak egiteaz bakarrik arduratzen; bezeroei aholku pertsonalizatua ere eskaintzen diete. Aldizkako berrikuspenetatik hasi eta diagnostiko konplexuagoetaraino, gertuko tratuak arazoak garaiantz ematea eta ibilgailuaren bizitza baliagarria luzatzea ahalbidetzen du. Gainera, profesional askok urteetako esperientzia dute, eta horrek gidariari lasaitasuna ematen dion jakintza eta trebezia bermatzen du.

Bestalde, tokiko kontzesionarioek ere bilakaera izan dute behar berrietara egokitzeko. Gaur egun, ibilgailu berriak zein bigarren eskukoak eskaintzeaz gain, zerbitzu integralak ere ematen dituzte: mantentze-lan ofizialak, neurrira egindako finantzaketa eta teknologia berriei buruzko aholkularitza, hala nola auto hibrido eta elektrikoen ingurukoak. Mugikortasun jasangarriago bateranzko trantsizio garai honetan, informazio argia eta gertukoa izatea inoiz baino garrantzitsuagoa da.

**ek!**

Zure publizitatea  
herriko aldizkarian

**688 621 535**

publizitatea@etakitto.eus

**GASOLEOEN BANAKETA**

estación de servicio  
**kantoi**  
elbar

20.000 L.  
2.000 L.

24  
Ordu

**Otaola etorbidea, 13-Bis**  
Tinoa. 943 20 73 74 / 94 671 02 77

**GAUEZ ZERBITZU  
AUTOMATIKOAK**

## Berbalagunek Gorrotxategiren txokolate-museoa bisitatu zuten asteburuan

Zapatu goiz gozoa pasa zuten Berbetan programako berbalagunek. Autobusa hartuta Tolosarantz abiatu zen hemenezortzi berbalagunez osatutako taldea, bertan baitauka Rafa Gorrotxategi gozogintzan erreferente handienetako bat denak obradorea, Txokolatearen museoarekin batera. Rafa Gorrotxategi familiaren hirugarren belaunaldia da eta haurtzarotik bizi izan da labe eta pastel-mahuka artean. Ospe handiko gozotegietan trebatu zen eta Jose Mari aitarekin lan egin zuen urte askoan. Eibarko berbalagunak heldu zirenean zain zuten Gorrotxategi, dotore, gozogile-uniformea jantzita. Lehenik eta behin, dastaketa egin zuten, kakao-aleari txokolate bihurtu aurretik egiten zaion prozesu osoa hobeto ulertzeko. Probatu



zituzten kakao-alea, kakao-pasta, gantza, txokolate purua, esnearekin, zuria... Gorrotxategiren azalpenak adi jarraitu zituzten berbalagunek. Dastaketaren ondoren museoan sartu ziren eta, bertan, txokolatearen elaborazioaren bilakaera historikoa ezagutu zuten, bost mende baino gehiagoko bizitza duen historia.

## Altxorraren Bilan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago

Maiatzaren 22an, barixakua, egingo da aurten Altxorraren Bila... eta kitto! Euskara Elkarteak da antolatzaileria eta izen-ematea zabalik dago joan den asteaz geroztik maiatzaren 15era arte. Parte-hartzaileen adinari dagokionez, 4tik 10 urtera arteko umeek har dezakete parte helduek lagunduta. Taldeka eman behar da izena eta taldeak, asko jota, 10 kidekoak izango dira. Taldeki-deak familia berekoak edo kuadrillakoak edo lagunak izan daitezke, baina bi-lau heldu egon behar dira talde bakoitzean. Ezinbestekoa izango da gutxienez helduetako batek ahozko zein idatzizko euskara ulertzea. Errebalek hasiko da ekintza 17:30ean. Bertan jasoko dute taldeek lehenengo pista eta, hortik aurrera, asmatzen joan

ahala pista berriak jasoko dituzte helmugara iritsi arte. Amaieran sariak egongo dira parte-hartzaile guztientzat. Izena emateko deitu telefonoz 943200918 zenbakira, mezua bidali (elkartea@etakitto.eus) edo [www.etakitto.eus](http://www.etakitto.eus) webgunean.



## Torrekuan egin zen ikasturteko azkenaurreko Barixakuak Jolasian

Torrekuko parkeak hartu zituen joan den ostiralean Barixakuak Jolasian ekimeneko jolasak. Primera-ko ordubetea pasa zuten txikienek euskarazko jolasetan parte hartzen. Maiatzaren 8an egingo dira ikasturteko azkenekoak, Urkizuko parkean, 17:00etatik 18:00etara, 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat.

# Eibarko Artisten Elkarteak: 60 urteko sormenaren eta komunitatearen bilgune

Gaur egun 160 bazkide inguruk osatzen dute Eibarko Artisten Elkarteak, eta horien artean dira Esteban Oroz, Elisabet Eguren eta Santi Entrena artistak. Kideek azaldu dutenez, elkarteak diziplina artistiko anitzak biltzen ditu, eta ez da pintura hutsera mugatzen, eskultura, argazkilaritza eta bestelako adierazpideak ere lantzen baitira.

Testua

IRATI ALVAREZ MALAXETXEBARRIA



**P**inturarako zaletasunak elkartutako lau lagunen ekimenetik sortu zen 1966an Eibarko Artisten Elkarteak. Jose Kareaga, Paulino Larrañaga, Dioni Murua eta Alejandro Marfulek jarri zuten oinarria, eta urte gutxiren buruan taldea handitzen joan zen. 1975ean eratu zen ofizialki elkarte gisa, eta ordutik jarduera artistikoa sustatzen dihardu etengabe.

Lehen urteetan, tokiko zein kanpoko artista ezagunen lanak erakutsi zituzten, besteak beste Ignacio Zuloaga eta Jacinto Olabe bezalakoak. Gaur egun, ordea, elkartearen jarduna askotarikoa da, eta diziplina ugari biltzen ditu. "Ez da margolarien elkarte hutsa; eskultura, argazkilaritza edo bestelako tekniketari aritzen den jendea ere badago", azaldu du Santi Entrenak. "Elkarte irekia da", azpimarratu du presidenteak.

Gaur egun, 160 bazkide inguruk osatzen dute elkarteak. Horien artean daude, Esteban Oroz, Elisabet Eguren eta Santi Entrena artistak. Jakinarazi dutenez, elkartearen denek ez dute sortzen, baina denek partekatzen dute sentsibiltate artistikoa. "Batzuek lehen margotzen zuten eta orain ez; beste batzuek, berriz, artearekiko harremana mantendu nahi dute beste-rik gabe", dio Elisabet Egurenak.

Bazkide berriei begira, Esteban Orozek belaunaldi berriengan jarri du arreta eta gehitu du azkenaldian gazte gehiago batu direla: "Garrantzitsua da belaunaldi berriei lekua egitea; etorkizunean haiek eramango baitute elkarteak".

Kide izatea ez da oztopo ekonomikoa: "Urteko kuota sinbolikoa da, 18 euro ingurukoa", azaldu du Orozek irribarrez. Hala ere, balioa ez da dirutan neurtzen: "Elkarteak ikasteko, partekatzeko eta harre-



Esteban Oroz, Elisabet Eguren eta Santi Entrena. IRATIALVAREZ

manak sortzeko espazioa da", adierazi du Elisabetek.

**Jarduera ugari eta ikuspegi zabala** Urtero Portalean egiten den talde-erakusketa da elkartearen ekitaldi nagusietako bat: bazkide bakoitzak norberak sortutako bi lan aurkezteko aukera izaten du. Horrez gain, aire libreko pintura-lehiaketa ere antolatzen dute. Haien esanetan, "udalak babestuta, baina elkartearen lanari esker bizirik mantentzen den jarduera".

"Artistontzat aire librean margotzea ezinbestekoa da", azpimarratu du Orozek. "Argazki batetik kopiatzen baduzu, kopiatu besterik ez duzu egiten; kalean, berriz, argia, perspektiba eta koloreen aldaketak ulertu behar dituzu".

Irteera kulturalak eta bisita gidatuak ere antolatzen dituzte. Eta giroari dagokionez, kulturaz gain, eguneroko harremanek ere garrantzia dute: "Bidaian antolaketan,

## Ez da margolarien elkarte hutsa; eskultura, argazkilaritza edo bestelako teknikan aritzen den jendea ere badago

kulturak bezainbeste pisu du gastronomiak", aitortu du Entrenak irribarrez. "Lehenengo galdera beti da non jango dugun".

### Estereotipoei aurre, sormenaren alde

Elkarteak kritikak ere jaso izan ditu, bereziki estilo artistikoari dagokionez. Horri erantzuteko, aurren lan abstraktuak sartu dituzte Portaleako erakusketan. "Jendeak uste du pintura klasikoari lotuta

gaudela, eta aurren hori apurtzeko pauso bat eman dugu", azaldu du Entrenak.

Eta gogorarazi du abstrakzioaren aitzindaria emakume bat izan zela: Hilma af Klint. Elisabet Egurenek argi du: "Beti egongo da kritikaren bat, baina guk umorez hartzen dugu".

### Aitortza falta eta aldarrikapena

Elkarteak baditu erronkak ere, batez ere erakusketa espazioei dagokienez. "Badirudi herrian arte mota jakin bati soilik ematen zaiola lehenetsuna", salatu du Entrenak. "Guk tokiko artistek beren lana erakusteko espazio duina izan dezaten nahi dugu soilik".

Hala ere, adierazi dute, paradokiko, elkartearen erakusketak izaten direla jendetsuenak.

### Artea, topagune eta terapia


Elkartearen indarra ez da soilik artea egitea, baizik eta espazio

sozial bat sortzea. “Arteak onura handia du maila mentalean”, dio Entrenak. “Hemen ez zaudebakarrik margotzen; besteekin zaude, partekatzen eta ikasten”.

Egurenak ere antzera bizi du: “Margotzen ari zarenean, burua horretan duzu. Eguneroko arazoak ahazten dira. Terapia moduko bat da”.

Eta Orozek umorez borobiltzen du: “Denbora ohartu gabe pasatzen da. Nik Einstein-en erlatibitatearen teoria margotzen ulertu nuen”.

**Etorkizuna: irekia eta kolektiboa**  
Elkartek argi du norabidea: irekitasuna. “Ez dugu nahi jendeak pentsatzea hau talde itxi bat dela”, diote. “Atea zabalik dago edonorentzat”.



## EUSKARAREN SOZIALIZAZIOA ETA TRANSMISIOA

# MINTEGIA

📍 Maiatzak 12, asteartea  
📍 SD Eibar-eko prentsa aretoan

**IZEN-EMATEA ZABALIK**



- 08:45** Materiala jaso.  
**08:55** Ongietorria eta agurra.  
**09:15** **“Norantz doa euskara?”.**  
Juanjo Allur eta Unai Oiartzun (SIADCO); eta Miren Segurola (UEMA).  
**10:05** **“Hizkuntza eskubideak Euskal Herrian, oraina eta etorkizuna”.**  
Agurne Gaubeka (Behatokia).  
**10:55** **“Bilbon euskaraz hazi. Haur txikiak dituzten gurasoen hizkuntza-bizipenak”.**  
Olatz Altuna (Soziolinguistikoko Klusterreko ikerlaria) eta Jaime Altuna (EHUko irakasle eta ikerlaria).  
**11:45** ATSEDENALDIA (ARGAZKIA ETA GOSARIA).  
**12:35** **MAHAINGURUA: Euskarazko eduki sortzaileak.**  
Ana Goitia (kazetaria eta eduki sortzailea) eta Alex Etxegibel (eduki sortzailea). Moderatzailea: Irati Alvarez (...eta kitto!).  
**13:25** Agurra.

**eta kitto!**  
euskara elkarteak





## Urbat Urkotronik-ek lidergoa galdu du Leioa WP B-ren mesedetan


**E.B.** Emakumezkoen Euskal Herriko ligan jokatzeko duen Urbat Urkotronik-ek porrot lazgarria jasan zuen asteburuan. Eibartarrak lider bezala iritsi ziren partidara eta bigarren sailkatua jaso zuten etxean, Leioa WP B, baina bizkaitarrak nagusitu ziren. “Ahalegina egin arren, bisitariak partidaren erritmoa markatu zuten eta aukerak hobeto baliatu zituzten”, diote Urbatekoek. Horrela, neurketa 8-18 amaitu zen.

2. Maila Nazionalen jokatzeko duen gizonezkoen seniorretako lehen taldeak, bere aldetik, berdin egin zuen WP Navarraren aurka, 12-12. “Norgehiagoka oso parekatua izan zen eta penaltietan erabaki zen, non etxeokoe puntua eskuratu zuten (4-3). Maila handiko lehia izan zen, markagailuan aldaketa askorekin eta bi taldeen arteko lehia estuarekin”, klubetik diotenez.

## Ander Unamuno infantila hirugarren Ezozin

**E.B.** Joan den zapatuan, Gipuzkoako Hiru Txirlo Txapelketaren 6. jardunaldia jokatu zen Ezoziko bolatokian, Soraluzen, eta 69 partehartzaile izan ziren bertan.

UDA taldeko Gorka Madinabeitiak (sailkapen orokorreko liderak) lortu zuen garaipena zortzi txirlorekin eta Lastur taldeko Joseba Lazkano izan zen bigarren zazpi txirlorekin. Hirugarren postua Eibarrera etorri zen, Asola Berri taldeko Ander Unamuno infantilak oso lan ona egin baitzuen sei txirlo lortuta, gurean etorkizuna dagoela erakutsiz.



## Eskola Kirolak espeleologia, surf eta Hontza Extrem egiteko aukera emango du maiatzean

**E.B.** Eibarko LH3-LH4 eta LH5-LH6 mailetako haur guztiek espeleologia, surf eta Hontza Extrem egiteko aukera izango dute.

Espeleologia maiatzaren 18an eta 19an egingo da Debako Ermitia kobazuloan, 17:00etatik 20:30era. Surfa maiatzaren 20an eta 21ean izango da Debako hondartzan, ordutegi berean, eta Hontza Extrem jarduera maiatzaren 25ean eta 26an LH3-LH4 mailetarako, eta maiat-

tzaren 27an eta 28an LH5-LH6 mailetarako, Otxandioko parkean, 16:45etik 20:45era.

Jarduerak ez dira Eskola Kirolean izena emanda dauden umeentzat bakarrik; haur guztiei daude zuzenduta.



Informazio  
gehiagorako



## Eibar100 Trail Erronka, Eibarko mendiak sei etapatan ezagutzeko aukera

**E.B.** Eibar100 Trail Erronkaren bigarren edizioa egingo da maiatzaren 15ean eta 16an. Erronka ez-lehiakorra izango da eta trail running-aren esentzian murgiltzeko aukera emango die aditu zein hasiberriei.

Antolatzaileen berbetan, Eibar100 Trail Erronka ez da ohiko lasterketa bat, gainditze kolektiboko esperientzia baizik. "Mendia ez da agertoki hutsa, partekatutako erronka bat baizik", da euren premisa. Horrela, proba hau berezi egiten duena bere izaera inklusiboa eta ez-lehiakorra da.

Erronkaren helburu kolektiboa inguruko mendirik adierazgarrienetan barrena (Galdaramuño, Egoarbitza, Aizketa, Kalamua, Urko, Ilordo, Azkonabieta, Akondia eta Garagoitxi) 100 kilometro osatzea da, gutxienez 21 ordutan. Horretarako, ibilbidea sei etapatan banatu dute, 15 eta 18 kilometro artekoa. Nahi izanez gero, ibilbidea osorik edo etapaka egin ahal izango da. "Ekitaldi hau perfektua da traila lehen aldiz probatu nahi dutenentzat: parte-hartzaileek nahi dituzten etapetara soilik batzea edo 100 kilometroko erronka osoa betetzeko

izena ematea aukeratu dezakete", antolatzaileen berbetan.

Zentzu horretan, elkarrekin korrika egiteko eta elkarri animatzeko aldarrria egiten dute. "Eibar100 Trail Erronkan inor ez da atzea geratzen", diote. Parte-hartzaileek elkarrekin egingo dute bidea, uneoro antolakuntzak gidatuta, 5 eta 5,5 km/h arteko batez besteko erri-moari eutsiz.

Antolakuntzakoek diotenez: "Inguruaz gozatzea da kontua; lautadetan eta jaitsieretan lasai korrika egingo dugu, esfortzua partekatuz".

### Izen-ematea

Jarduera doakoa izango da, baina aurretik izena eman behar da, maiatzaren 6a baino lehen. Horretarako, Klubaren kanal ofizialetera joan beharko da: [www.deporeibar.com](http://www.deporeibar.com), [eibar100@deporeibar.com](mailto:eibar100@deporeibar.com), [mendia@deporeibar.com](mailto:mendia@deporeibar.com) edo 943 20 19 04 telefonoan.

Gehienez 150 parte-hartzaile onartuko dituzte eta lehentasuna erronka osoari aurre egiten diotenek izango dute. Hala ere, bakoitzak nahi duen etapa edo etapetan eman ahal izango du izena.

## Asteburu borobila izan da SD Eibar-entzat

**E.B.** Gizonezkoen SD Eibar-ek jarrera eman zion bolada bikainari Albaceteri 0-3 irabazita eta play-off postuak oso gertu ditu. Bigarren postua ere ez du oso aparte, sei puntura hain zuzen ere, eta liga amaitzeko bost partiduren faltan, itxaropenez begiratzen dio etorkizunari.

Beñat San Joseren mutilek oso neurketa erabakigarria jokatu dute zapatuan, 21:00etan, postu bat beherago dagoen Malagaren aurka, Ipuruan.

F Ligako emakumezkoen taldea lehiara itzuli zen asteburuan. Hamar partidutan puntu bakarra lortuta, emaitza positiboa lortzeko premia zuen Iñaki Goikoetxeak zuzentzen duen taldeak, jaitsiera postuak behingoz atzean lagatzeko.

Horretarako arerio aproposa zuten Eibarrek, Levante azken sailkatua, eta asko borrokatu behar izan zuten arren, hiru puntuak Ipuruan gelditzea lortu zuten (2-1). Horrela, armaginek 21 puntu dituzte orain, liga amaitzeko lau partiduren faltan jaitsiera postuak 11 puntura dituztelarik.

## Futbol zaletuaren Kopako final laurdenak jokoan

**E.B.** Asteburu honetan zubia dagoenez, maiatzaren 9an eta 10ean jokatu dira futbolzaletuaren Kopa txapelketako final laurdenak.

Hauek izango dira jokoan egongo diren partidak: Bergara Pneumatiakoak – Garajes Garcia, Limpiezas Rueda – Malape Taberna eta Xania Taberna – Kalaka Buenos Aires. Kalaka Buenos Airesek final zortzirenetako partidua galdu zuen, baina bigarren aukeran hartu dute.



Cesar Perezek irabazi zuen 2025eko Valenciaga Oroigarria. EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA

# Etorkizuneko izarrak Eibarren distira egitera Valenciaga Oroitzarreen

Domekan, Valenciaga Oroigarria txirrindularitza lasterketaren 55. edizioa jokatu da Eibarren. Elite eta 23 urtez azpikoen mailetako txapelketa entzutetsuenetakoa da eta etorkizunean txirrindularitzan bidea egin ohi duten gazteak ikusteko aukera ematen digu, kirol honetan ematen dituzten lehen pausuen lekuko izanik.

**E.B.** Eibar txirrindularitzaren erdigune bihurtuko da beste behin 55. Valenciaga Oroigarria lasterketarekin. Errepideko Espainiako Koparako proba baliagarria izango da eta, ondorioz, estatuko zaletu mailako txirrindulari gazte onenak izango dira bertan.

Lasterketa Toribio Etxebarria kalean hasi eta amaituko da (09:00etan hasi eta 13:00ak inguruan amaitu) eta txirrindulariek 159,3 km-ko ibilbideari egin beharko diote aurre. Ibilbideak,

**Eibarko Txirrindulari Elkartearen mendeurrenean, bere lasterketa kuttunak 55 urte betetzen ditu**

gainera, ez du atsedenek emanago, bidean hainbat mendate igo behar izango dituztelako: 3. mailako Itziar, Meagas, Areitio eta San Miguel (hau helmugarako 13 km-ren faltan); 2. mailako Elgeta; eta 1. mailako Ixua (garaipena lortzeko gakoa izan daitekeena).

Maila honetako lasterketa askotan bezala, ikuskizuna izaten da nagusi Valenciagan. Erritmo bizia nagusitzen da, erasoak daude etengabe eta taldeko estrategiek garrantzia izaten dute, azken hitza txirrindularien indarrak izaten duelarik.

Errepide bazterrean egoteko aukerarik ez baduzue, lasai, lasterketa zuzenean jarraitzeko aukera egongo delako Eibarko Txirrindulari elkartearen YouTube-ko kanalean.

## Izen historikoak

Valenciaga Oroigarriaren lehen edizioa 1972an egin zen eta Jose Luis Viejo izan zen garaile bertan. Harrezkero, izen handiko txirrindulariak pasa dira lasterketatik, batzuek garaipena ere lortuz, baina batez ere gero profesionaletan beharrezkoa izango zuten espezierentzia jasoz.

Hauek dira lasterketak izan dituen irabazle batzuen izenak: Julian Gorospe (1981an), Jokin Mujika (1982 eta 1983), Javier Murguialday (1985), Jose Luis Rubiera (1994), Unai Osa (1996), Oscar Freire (1997), Joaquim 'Purito' Rodriguez (2000), Mikel Nieve (2007), Eduard Prades (2012), Jon Barrenetxea (2020), Pau Miquel (2021) eta Pablo Castrillo (2022).

Podiumera ere izen ezagunak igo dira: Pedro Horrillo, Igor Astarloa, Juan Antonio Flecha, Iban Mayo, Andrey Amador, Richard Carapaz, Roger Adria eta Igor Arrieta, adibidez.

# MAIATZAK 3 (EIBAR-EIBAR)



GARAILEA



MENDIA



23 URTETIKAZPIKO ONENA



SAIATUENAREN SARIA



TARTEKO HELMUGAK



SPRINT BEREZIAK



LEHEN EUSKALDUNA



LEHEN GIPUZKOARRA



UDABERRI PROBA  
(JUNIORRAK)



CCE SARIA  
(KADETEAK)



VIII. EIBARKO HIRIA  
SARI NAGUSIA  
(UCI PRO)




SAN JUAN SARIA  
(JUNIORRAK)



TALDEKAKO SAILKAPENA

## PERFI LA



### LAGUNTZAILEAK

- Eibarko Udala
- GipuzkoakoForu Aldundia
- S. D. Eibar Fundazioa
- Laurel&Hardy Pub
- Izadi Loradenda
- Oriá Sport Wear, S.L.
- Beltrán Igogailuak
- Gorit Hornikuntzak, S. A.
- Soraluze S. Coop
- Ruibal
- Manufacturas Ges
- TAES
- Urkotronik
- Dario autobusak
- Alkideba
- Ongi Etorri Taberna
- Ixua Hotela
- MTE
- Tekniker
- Arkupe Taberna
- Guridi Taberna
- S.C.R.G. Kamarroak
- Kalaka Taberna
- Buenos Aires Taberna
- As Burga Galiziako Etxea
- CasaCantabria

# “Birtualtasunaren eta errealitatearen artean ez dago muga argirik”

KATIXA AGIRRE • Idazlea



Katixa Agirre (Gasteiz, 1981) idazlea izan da “Idazlearekin Harixa Emoten” saioko azkeneko gonbidatua “Berriz zentauro” (Elkar, 2022) liburuarekin. Etorkizun hurbilean kokatu du kontakizuna, 2050. urteko Parisen, errealitate fisikoaren eta birtualaren arteko mugak eta aldeak aipatzeko. Besteak beste, gizartearen eta teknologiaren garapenez eta iraganetikiko harremanaz hitz egiten digu idazle gasteiztarrek.

Testua MAIDER ARANBERRI

## **Sekulako irudimen-ariketa egin duzu nobela hone-tan. Nolako izan da horrelako liburu bat idaztea?**

Irudimena beti sartzen da jokoan, baina kasu hone-tan ere inguruari arreta handia jarri diot, gure gaurko egoerari: ze joera daude, ze kezka azaleratzen ari dira eta handiagoak egiteko itxura dute? Horiek hedatu eta etorkizunean proiektatu ditut.

## **Non izan zuen abiapuntua liburuak?**

Emakume baten irudia etorri zitzaidan, Pariseko Vendome plazan perfume bat erosten, parentesi bat egiten bere bizitzan, bere bizitza ez baitzaio asko gustatzen, eta aldi berean ez daki zer dagoen gaizki, itxuraz dena daukalako, pribilegiatu bat da. Gero, kuriosoki, Vendome plazakoa ez da liburuan agertzen, baina horrela ezagutu nuen nik liburuko protagonista, Paula: perfume bat erosten.

## **Proposatzen duzun munduak gaur egun ezagunak zaizkigun elementuak ditu. Abisu, esajerazio edo ezinbesteko eboluzio gisa planteatu dituzu?**

Eboluzio gisa esango nuke, ez ezinbestekoa, ezer ez baitago idatzia oraindik. Etorkizun posible bat litzateke, ez okerrena, ezta hoberena ere, akaso.

## **Nolakoa izan da birtuala eta erreala etengabe elkartzen diren mundu bat eraikitzekeko prozesua? Zer interesatzen zitzaizun bien arteko nahasketa horretan arakatzea?**

Oso erraza, denok bizi baikara birtualtasun eta errealitate horren bueltan. Zer da erreala, azken finean?

Imajinatzen duguna? Amesten duguna? Pelikula bati begira sentitzen duguna? Online garatzen diren harremanak? Horiek guztiak errealak dira edo birtualak? Ez dago bien arteko muga argirik.

## **Eleberriak ironia eta egonezina nahasten ditu. Nola landu duzu tonuen oreka?**

Alde batetik berezkoa dudala esango nuke, horrela begiratzen diot munduari nik ere. Gordintasunetik, baina distantzia hartuta ere bai, ondo dator perspektiba hori gauzak oso dramatiko ez hartzeko. Jasanezina litzateke bizitza bestela.

## **Berritasun teknologikoak asmatu dituzu. Nolako izan da ariketa hori?**

Ez pentsa, dagoeneko existitzen diren gauzetan oinarritu naiz, oraindik oso garatuta edo oso zabaldua ez dauden teknologietan, baina asmatu ez dut asko asmatu.

## **Mary Wollstonecraft feminismoaren aitzindaria pertsonaia bihurtu duzu eta bere presentzia ia fisikoa eta intimoa da. Zergatik erabaki zenuen eleberrian sartzea?**

Gogoia nuen pertsonaia liluragarri hori istorio batean sartzeko, berari buruz gehiago ikasi eta ezagutzeko, eta bereziki Iraultza Frantsesaren garaian bizi izan zuena kontatzeko: pentsa XVII. mendeko idazle emakumezko bat zela, bakarrik zeharkatu zuena itsasoa iraultza bat bere begiekin ikusteko eta munduari kontatzeko. Errealitate birtualak ematen



ARGAZKIA: ZALOA FUERTES

zidan horren aukera (protagonistak eduki birtualak diseinatzeko eta Wollstonecraft ikertzen dabil), eta prozesuan joan nintzen ikusten Wollstonecraften bizitzak eta garaiak bazituela gauza asko komunean etorkizuneko garai horrekin.

**Zergatik jo duzu etorkizunera? Eta nola begiratu diozu etorkizunari, baikor?**

Abiapuntua ipuin batean dago, 'Zirriborroak eta gero' izeneko proiektu baten baitan idatzi nuen 'Lortze perimetroa' deritzon ipuinean, han etorkizuneari pentsatzeko jarri bainintzen lehenengo aldiz. Amatasunak ere badu zerikusirik etorkizunarekin proiektatzeko nahi honekin, bat-batean pentsatzeko hasten zarelako: nolakoa izango da mundua nire seme-alabak helduak direnean? Eta galdera horrek ez duenez erantzun argirik (inork ezin du etorkizuna aurreikusi), ba bai, erabaki dut baikor samarra izatea.

**Noiz dago amaituta horrelako nobela bat?**

Eguna amaitzen denean eta Paulak bere bidaia osatu duenean. Nahiko argi nuen egun bakar batean gertatuko zela istorio guztia eta egun horretan gauza asko gertatuko zitzaizkiola Paulari, eta ezer ez zela berdina izango ordutik aurrera.

**Liburua amaitzean irakurleak zein hausnarketa egitea edo bere buruari zer galdetzea gustatuko litzaizuke?**

Hori norberak egin behar duen bidaia da, ez dut nik ezer aginduko, baina liburuan badaude hariak nahi duenak tira egin dezan: iraganarekiko gure harrema-

**“Munduari gordintasunetik, baina distantzia hartuta, begiratu behar zaio. Ondo dator perspektiba hori gauzak oso dramatiko ez hartzeko. Jasanezina litzateke bizitza bestela”**

na (alegia, noraino baldintzatzen gaituen iraganak), etorkizuna den fikzioa, teknologiarekiko dependentzia eta aldi berean antzinako inertzien pisua, amatasunaren gazi-gozoak... gauza ugari daude hor.

**Zer darabilzu esku artean?**

Nire azken eleberria promozionatzen nabil, 'Barne zerbitzuak', berriz ere jo dut iraganera, kasu honetan gerra zibileria, eta II Mundu Gerrako garaietara, espioien nobela bat egiteko: 'Álava' sarearen istorioa berreraiki dut eta hura osatu zuten euskal emakumeen balentria kontatu.

**Zein liburuk eman dizute arreta azkenaldian?**

Asko-asko gozatu dut Maddi Ane Txoperenaren 'Zaldi bat' nobela. Laburra da, gainera, di-da batean disfrutatzen da.



## Familiantzat sexualitate tailerra egingo da Andretxean

**S.H.** *Familiak eta sexualitatea, nola lagundu haur eta nerabeei* izenburuko tailerra antolatu dute maiatzaren 7rako (eguenan) Andretxea Sex sexu-aholkularitza zerbitzutik. Elebitan emango dute, 18:00etan, Andretxean, eta jarduera irekia eta doakoa izango da. Antolatzaileek azaldu dutenez, “familiantzako tailer espezifiko bat egingo da, etxeko sexualitateaz hitz egiteko tresnetan eta baliabideetan oinarritua. Ohiko zalantzak aztertuko dira, hala nola: noiz hasi gai horiek jorrazten, zer egin isiltasunaren edo arbuioaren aurrean, pornografiaren eragina, edo sare sozialen erabilerari lotutako erronkak. Ikuspegia praktikoa eta adiskidetzaila izango da, eta hainbat adinetara egokitutako jarraibideak eskainiko ditu”.



## ‘Burdinaren tresneria’ jokoan antolatu dute Museoa

**S.H.** Pirinioetako Burdinaren Bidearen IV. Jardunaldiak hartuko ditu Eibarko Armagintzaren Museoa asteburu honetan, maiatzaren 2an eta 3an. Horretarako, *Burdinaren tresneria* izeneko leihaketa antolatu dute. Museoa prestatu dituzten hitzak dagokien tresnekin lotu beharko dira jokoan, eta ondo erantzuten dutenen artean saria zozketatuko dute.



## ‘Amianto Fest’ jaia prestatu dute maiatzaren 2rako

**S.H.** Frediyskate skateparkeak zortzi urte betetzen dituela eta, hori ospatzeko *Amianto Fest* jaialdia antolatu dute maiatzaren 2rako, zapatarako. Goizeko 11:00etatik aurrera hasiko dira jarduerak: tailerrak, tattoo-flash, skate-jam, musika... Eta, hirugarren urtez jarraian, kontzertuak egongo dira Eibarko Gaztetxian, 21:00etatik aurrera. Gal (Bilbo), Lee Kore (Euskal Herria hardcore) eta Hilerrri (Goierriko raw punka) taldeek joko dute eta, ondoren, musika nahasketak hasiko dira, Anima eta 90 Grados-en eskutik.



## Datorren asteburuan ospatuko dira Galiziako jaiak

**S.H.** Datorren asteko barixakuan, maiatzaren 8an, hasiko dira As Burgas Galiziako Etxeak antolatzen dituen XLI. Dia Das Letras Galegas jaiak, 19:00etan, Urkizun izango den jai batzordearen tabernaren irekiera ofizialarekin. Horrekin batera, pailazoen haurrentzat animazioa eskainiko dute. Gaueko 22:00etatik aurrera, berriz, musikak eta dantzaldiak beteko dute parkea, orkestra baten ikuskizunarekin. Jaiak asteburu osoa beteko du, barixakutik domekara bitartera garatuko den egitarau zabalarekin.



## Haurrentzat bost antzezlan eskainiko dituzte Eskolarteko Antzerki Erakusketan

**S.H.** Maiatzaren 5ean (martitzena) hasiko da Debarreneko 41. Eskolarteko Antzerki Erakusketa eta, maiatzaren 19ra bitartean, antzerki konpainia ezberdinen emanaldiak hartuko ditu Coliseo antzokiak. Herriko ikastetxeetako ikasleei zuzenduta dauden emanaldiekin batera, programazioaren barruan kaleko hainbat ikuskizun eskainiko dira. Eibarko Udalaren Kultura sailak antolatu du egitaraua eta, adierazi dutenez, “eskola-publikoa antzerkira hurbiltzea da, eta antzerki-konpainiek beraien ikuskizunak publiko horri erakustea” da ekimenaren helburu nagusia. Hori dela eta, antzezkiuzen guztiak eskola-orduetan (15:00etan) izango dira, Coliseo antzokian.

Marie de Jongh Teatroa konpainiak zabalduko du programazioa, martitzenean taularatuko duen *Kimu* lanarekin. Taldeak duen estilo bereziari jarraituta, oso bisuala izango da, eta irudimenez betetako istorioa kontatuko diete ikusleei euskaraz. Eta, handik bi egunera, Spasmo Teatroa taldeak *Zomorrotxoak* izenburuko lana eskainiko du, hori ere euskaraz. Keinuzko umore antzerkia izango da, ia hitzik gabekoa, eta lanak intsektuen mundua aurkeztuko die haurrei. Bi antzezlan hauek Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailakoentzat izango dira

Maiatzaren 8an, berriz, Labanda Teatro zirko konpainiak *Nuur* ikuskizuna eskainiko du, 5 urteko gelako eta Lehen Hezkuntzako 1. mailakoentzat. Yarleku konpainiaren eskutik *Etzerik txikiena* lana aurkeztuko dute maiatzaren 12an (martitzena), Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako haurrentzat. Eta, amaitzeko, maiatzaren 19an (martitzena) Lasala konpainiak *Alai familiar* lana eskainiko du, 5 urteko gela eta Lehen Hezkuntzako 1. mailako umeentzat.



## ‘Escape Room’ euskarazko ikuskizuna maiatzaren 9an

**S.H.** Txalo Produzioak antzerki-taldeak *Escape Room* ikuskizuna eskainiko du Coliseo antzokian, maiatzaren 9an, 19:00etan. Escape room jolasa du oinarri beldurrezko komedia horrek, eta aurpegi ezagunak izango ditugu eszenatoki gainean: Nerea Gorriti eibartarra, Zuhaitz Gurrutxaga elgoibartarra, Iñigo Aranburu eta Oihana Maritorea. Lan honetan misterioz betetako istorioa kontatuko dute: “Haurtzarotik lagunak diren bi bikotek hitzordu bat jarri dute elkarrekin escape room bat egiteko. Escape rooma dagoen auzoan berriki zatikatutako gizon baten gorpua edukiontzi batean agertu da... Bildutako lau lagunek ondo pasatzeko jolas atsegin bat aurkitzea espero dute, euren adimena probatzeko eta barre egiteko hitzordu bat”. Antzezlan euskaraz izango da, eta sarrerak Kutxabank bitartez erosi ahal izango dira.

## ‘Argazkigintza dokumentala’ tailerrera izen-ematea zabalik

**S.H.** Maiatzaren 8an hasiko da Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeak antolatutako *Argazkilaritza Maiatzean*, aurtengo erakusketa guztiak zabal-tzearekin batera (19:00etan hasiko dira, Portalean). Horrekin batera, argazkigintza dokumentalari buruzko tailerra emango du Javier Sanchez-Mongek maiatzaren 9an, zapatuan. Egun osoko tailerra izango da, Portalean, eta izen-ematea zabalik dago (argazkilaritza@deporeibar.com helbidera idatzi behar da). Tailerraren prezioa 20 eurokoa da.



ERRAZAGOA

			1	4			7		
	1	7		3					4
8									5
	5		7			8	2		
7		6				3			9
	3	2			1		5		
6									2
2				8		5	6		
	7			5	6				

**SUDOKUA**

3	4	6	9	5	2	7	8	1	2
1	9	5	7	4	8	3	4	6	2
2	8	7	6	1	3	5	2	9	4
7	4	5	1	9	8	2	6	3	7
2	8	7	6	1	3	5	2	9	4
7	4	5	1	9	8	2	6	3	7
2	8	7	6	1	3	5	2	9	4
7	4	5	1	9	8	2	6	3	7
2	8	7	6	1	3	5	2	9	4
7	4	5	1	9	8	2	6	3	7

5	7	9	2	4	3	6	8	1
2	1	8	9	7	6	5	4	3
3	6	4	1	8	5	2	7	9
8	4	1	6	5	2	3	7	9
9	2	3	4	1	7	8	5	6
6	5	7	3	9	8	1	2	4
4	9	6	8	2	5	3	1	7
7	3	6	8	2	9	4	1	5
1	8	5	7	6	4	9	3	2

ZAILAGOA

1			7						2
	3				9				
	9	2		3	1	7			8
		7							
9	2							5	6
						3			
3		4	1	8		2	7		
			9				4		
5				3					1

**HIZKI ZOPA**

X	S	T	E	A	N	A	L	B	X
G	D	R	R	U	I	F	E	U	E
I	N	G	L	L	R	D	B	R	R
D	L	T	O	K	A	B	I	U	A
A	N	L	J	I	U	R	H	S	Z
R	B	L	U	A	L	T	O	O	T
I	O	E	A	X	T	Z	T	I	U
A	L	T	V	F	Z	O	Z	L	N
B	O	T	I	L	A	B	A	A	A

- AULKIA
- BIHOTZA
- BOTILA
- BURUSOILA
- LANA
- ERAZTUNA
- IRAULTZA
- ERLOJUA
- GIDARIA

X	X	X	B	Y	T	L	O	B
N	X	Z	O	Z	X	A	I	V
O	I	Z	Z	L	X	V	I	O
O	O	O	L	L	X	O	I	O
X	S	H	V	V	X	O	I	O
V	O	I	B	V	X	O	I	O
V	X	I	O	O	I	O	N	O
X	O	I	I	V	V	O	S	X

# Apirilak 30 - Maiatzak 7

## BARIXAKUA 1

### MAIATZAREN LEHENA

**12:30** "M1. Langileok eragin" manifestazioa, LAB sindikatuak antolatuta. Untzaga plaza. **14:30** Herri bazkaria. Ondoren, Nebarren kontzertua. Untzaga (udaletzeko arkupeak).



## ZAPATUA 2

### SANTA KURUTZEKO JAIAK

**10:30** Kanpaiak. **11:00** Meza, Santa Kurutzeko ermitan. Jarraian, hamaiketako egongo da, Imanol Astiasaran eta Unai Andonegi trikitilariak girotua. **12:15** Erraldoi, buruhandiak eta haurrentzako jolasak. **13:00** Herri kirolak Oihana Fernandez de Barrena, Julen Alberdi, Jon Unanue "Goenatxo III" eta Ainitze Zumetaren eskutik. **14:30** Bazkaria, Ixua jatetxean (tiketak jatetxean salgai). Ondoren, erromeria, Imanol Astiasaran eta Unai Andonegik alaitua.



## MUSIKA

**21:00** Amianto Fest, Fre-diyskate-n 8. urteurrena ospatzeko. Kontzertuak: Gal, Leekore eta Hilerri. Ondoren, "pintxadak", Anima eta 90 Gradosen eskutik. Eibarko Gaztetxia.

## DOMEKA 3

### TXIRRINDULARITZA

**09:00** 55 Valenciaga Oroitzarrea. Errepideko Espainiako Kopa lasterke-ta, Elite eta Sub23. Toribio Etxebarria.



### SANTA KURUTZEKO JAIAK

**09:45** Santa Kurutzera igoe-ra, Urkizuko iturritik. Saria zozketatuko da parte-har-tzaile guztien artean (izen-ematea 09:30ean Urkizuko iturrian). **10:30** Kanpaiak. **11:00** Meza, Santa Kurutzeko ermitan. Ondoren hamaiketako egongo da, Usartza txistulariak girotua. **12:00** Dantza emanaldia, Kezka dantza taldearen eta Usartza txistulari taldearen eskutik. **12:15** Makilaje tailerra eta haurrentzako jolasak. **12:45** Potx paila-zoaren ikusizuna. **13:45** Txapel-jaurtiketa, nahi duten guztientzat. **14:30** Kanpai-hotsez amaituko dira asteburuko jaiak.

## ASTELEHENA 4

### KANTU-SAIOA

**19:00** "Euskal kanta tradi-zionalak" saio irekia. Arrate Kultur Elkarte.



## MARTITZENA 5

### ANTZERKIA

**15:00** "Kimu" (Marie de Jongh Teatrea). Euskaraz. Debabarreneko XLI. Esko-larteko Antzerki Erakuske-ta. Doan. Coliseo.

### HERRITU

**18:30/19:30** Gure Eskuren Herritu ekimenarekin bat egiteko mahaia. Eibarko Klub Deportiboa (1. solairu-ko lokalean).

## EGUAZTENA 6

### AGURTZEN

**18:00/20:00** Aurretiazko borondateei buruzko infor-mazio-zerbitzua, Ikasten-en eskutik. Untzaga gizarte etxea (Arrate aretoa).

### EUSKAL JAIA

**19:00/21:00** Larrain-dantza errepasoa. 5 euro (Arrate Kultur Elkarteko bazkideek dohainik). Arrateko Andra Mari ikastetxea.

## EGUENA 7

### ANTZERKIA

**15:00** "Zomorrotxoak (Spas-mo Teatrea). Euskaraz. De-babarreneko XLI. Eskolar-teko Antzerki Erakusketa. Doan. Coliseo.

### HITZALDIA

**18:00** "Familiak eta sexua-litatea, nola lagundu haur eta nerabeei" tailerra, An-dretxeaSex sexu-aholkula-ritza zerbitzuaren eskutik. Elebitan. Jar-duera irekia eta doakoa. Andretxea.



## ERAKUSKETAK

### Maiatzaren 3ra arte

"Sormenaren Hazia", Eibar **BH**iko ikasleen erakusketa. Portalea.

### Maiatzaren 15era arte

"Indusen ibilbideak: Hima-laiatik Karatxira. Pakistan, begirada sozial bat", Igone Mariezkurrenaren argaz-kiak. Andretxea.

### Maiatzaren 17ra arte

"El Trust Eibarres S.L" era-kusketa, enpresaren men-deurrena ospatzeko. Armagintzaren Museoa.

# ZINEA COLISEO



**“El diablo viste de Prada 2”**  
KOMEDIA. DRAMA

2025/AEB/119'  
Zuzendaria: David Frankel  
Aktoreak: Meryl Streep, Anne Hathaway, Emily Blunt  
**Moda. Lana/enplegua.**

## 1 ARETOA

- **2an**: 17:00
- **3an**: 17:00

## ANTZOKIA

- **2an**: 19:45, 22:30
- **3an**: 20:00
- **4an**: 19:30



**“Boulevard”**  
DRAMA. ERROMANTZEA

2026/Espainia/113'  
Zuzendaria: Sonia Méndez  
Aktoreak: Eve Ryan, Mikel Niso, Biel Antón, Enzo Oliver  
**Nerabezaroa. Maitasun erromantikoa**

## 1 ARETOA

- **2an**: 19:45, 22:30
- **3an**: 20:00
- **4an**: 19:30



**“Incontrolable”**  
DRAMA

2025/Erresuma Batua/120'  
Zuzendaria: Kirk Jones  
Aktoreak: Robert Aramayo, Shirley Henderson, Maxine Peake  
**Benetako gertakarietan oinarritua. Gaixotasuna**

## 2 ARETOA

- **2an**: 17:00, 19:45, 22:30
- **3an**: 17:00, 20:00
- **4an**: 19:30



**“Mi robot favorito”**  
ANIMAZIOA. ZIENTZIA-FIKZIOA

2025/Kanada/86'  
Zuzendariak: Kid Koala  
**Espazioko abentura. Robotak**

## ANTZOKIA

- **2an**: 17:00
- **3an**: 17:00

**FUNEUSKADI**  
Grupo Asistira

**TANATORIO EIBAR**

**FUNERARIA MUGICA**  
Funeruskadi

**TANATORIO CREAMATORIO ELGOIBAR**

**24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951**  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

<p><b>Eibar:</b> Otaola, 27</p> <p><b>Eibarko bulegoa:</b> Bidebarrieta, 20</p>	<p><b>Elgoibar:</b> Xixilion, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p> <p><b>Ermuako bulegoa:</b> Marqués de Valdespina, 16</p>
---	--

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

**JAVI ESKARMIENTO**  
Ez kezkatu gehiago,  
Castle Rocken zaude orain

943 20 67 76  
publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzen ditugu.



Zorionak **NAIKE!**  
Maitzaren 2xan  
7 urte beteko dozuz  
eta. Besarkada  
haundi bat fameli-  
xaren eta, batez  
be Lur, Oinatz eta  
Bernaten partez.



Zorionak **AIMAR!**  
Maiatzaren 2xan  
9 urte beteko dozuz  
eta. Patxo haundi-  
haundi bat etxekuen  
partez.



Zorionak **JULEN!**  
Domekan 12 urte  
beteko dittuzu  
eta! Patxo potolua  
etxekuen partez.



Zorionak **ANDER!**  
Astelehenian,  
hilak 27, 9 urte bete  
zenuz eta.  
Musu eta besarkada  
haundixa famelixa-  
ren partez.



## Esteban Plazaola Zubizarreta

9. URTEURRENA (2017/05/03)



Maiatzak 3an. 9 urte dagoeneko.  
Sekula baino presentago zaude  
gure bizitzan eta, batik bat,  
gure bihotzetan.

ESKERRIK ASKO,  
9 urte hauetan dirdira handiena  
egiten duen izarra izanagatik.



MAITE ZAITUGU (ZURE EMAZTEA ETA ALABAK)

# Iragarki laburrak



943 20 67 76

aldizkaria@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan
- 3.3. Konpartitzeko

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edota etxeko lanetan jarduteko. 642852854.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 614339369.
- Mutil euskalduna eskaintzen da pertsonak zaintzeko, baita gauzez ere. Bost urteko esperientziarekin. Ziurtagiri soziosanitarioa. 652361868.
- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko edo interna bezala lan egiteko. Erreferentziarekin. 643342975.
- Emakumea eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko edo interna bezala lan egiteko. Erreferentziarekin. 632642320.
- Ingeniari mekanikoa eskaintzen da auto konponketak egiteko; larrialdikoak, konponketa txikiak eta abar. 641838914.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Ziurtagiri soziosanitarioarekin. Edozein ordu eta egunetan. 672965658.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Astelehenetik ostiralera. 641834341.
- Emakumea eskaintzen da ospitalean dauden nagusiak zaintzeko. Orduka. 641837075.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edota umeak zaintzeko. Baita etxeko lanetarako ere. 602715786.

- Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Eskarmentu askorekin, ziurtagiri soziosanitario eta zainketa aringarrietako tituluarekin. Edozein leku, ordu eta egunetan lan egiteko prest. 640265606.
- Langilea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxean edo ospitalean. Orduetegi malgua (gauzez, asteburuetan...). Ziurtagiri soziosanitarioarekin. 643579693.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu edota etxeko lanetarako. 631793773.

### 4.2. Langile bila

- Ermuko hortz klinika batek higienista/auxiliarra behar du, lanaldi erdirako. Bidali zure CV hortzklinika.4@gmail.com
- Emakumea behar da pertsona nagusi bat zaindu eta laguntzeko. Beharrezkoa paperak eta titulua edukitzea. Interna bezala edo asteburuak. Esperientzia baloratuko da. 627307168.
- Gastesi hortz-klinikan odontologo bila gabiltza. Interesatuak, bidali kurrikuluma mesedez: clinica@gastesidental.es

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

## 6. DENETARIK

### 6.1. Salgai

- Koltxoia salgai, 1,35x1,90koa, 75 eurotan. iraurgi55@gmail.com

NON DAUDE DEBABARRENEKO EKINTZAILEAK?

**NON ZAUDEEEEEEE?**



Jo\*\*!  
Debabarreneko  
ekintzaileen topaketa  
prestatu dute.

2026.05.15  
12:00-15:00  
PORTALEA (EIBAR)

Euzko Legebiltzaria DEPUZKONDA EIBAR



## Eibarko **PROFESIO LIBERALAK**

### ABOKATUAK

**CRISTINA BAZ LARRAÑAGA**

Fermin Calbeton 4, 3 esk.  
Tel. 943 12 80 55  
www.cristinabaz.com  
cristinabaz@icagi.net

**MARTA VALERA ECHALUCE**

Fermin Calbeton 4, 3 D lokala  
Tel. 659 38 33 19 - 943 20 05 70  
abogada@martavalera.es

### AHOLKULARIAK

**GAURVE**

Fermin Calbeton 13-15  
Tel. 943 20 24 61  
www.gaurve.com  
consultores@gaurve.es

**GESTILAN**

Zezenbide 4  
Tel. 943 20 70 02  
www.gestilan.es  
gestilan@gestilan.es

### BITARTEKARITZA

**CRISTINA BAZ LARRAÑAGA**

Fermin Calbeton 4, 3 esk.  
Tel. 943 12 80 55  
www.cristinabaz.com  
cristinabaz@icagi.net

Hemen zure lekua

Informazioa: 943 20 09 18 ( ...eta kitto!)

# zarelako<sup>o</sup>para

Zure pausoak indartzen  
du euskararen bidea.

Batu zaitez eta  
egin dezagun Eibar  
euskaldunagoa.

**EGIN  
ZAITEZ  
BAZKIDE**

## KUOTAK (URTEKO)

- Umeak (16 urtetik behera):  
urtean 5€
- Ikasle, langabetu eta jubilatuek:  
urtean 20€
- Langileak:  
urtean 50€

*\*Errenta aitortpenean %30 itzuliko zaizu*

Info+: 943200918  
elkartea@etakitto.eus

**eta kitto!**  
euskara elkarte